

BI MILA ETA HAMABOSTEKO AZAROAREN BIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2015eko azaroaren bian, 19:30etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M^a Acillona Martínez alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitzbea Yarto Goiri
Elixabete Arriaga Calvo
Aintzane Enzunza Zorrozu
Gartzen Agirregoitia Abad

Aitziber Ibinarriaga Delgadok eta Haizea Bengoetxea Andikoetxeak aurretiaz azaldu dute bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HAMABOSTEKO IRAILAREN HOGEITA ZORTZIAN EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.

2015eko irailaren hogeita zortziko aparteko bilkuraren Aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da euren edukia:

Fakturen onarpena.

Euskara Teknikariaren zerbitzuak kontratatzeko adjudikazioa.

Obraren amaiera baimena eta bermearen itzulketa Juan Urkiaga Madariagari.

“Leizarretik Magaltzara doan bidean sortutako kalteak” obraren adjudikazioa

“Otazu etxebizitzaren alboan, udal sarean sortutako zuloa” obraren adjudikazioa

Iñaki Otazua Etxebarriak aurkeztutako ur hartunea eta kontadorearen eskaera.

Javier Elgezabal Arregik aurkeztutako obra lizentziaren eskaera.

Fakturen onarpena.

Elena Otazua Orbek aurkeztutako obra lizentziaren eskaera.

Iñigo Pazos eta Silvia Camachok aurkeztutako obra lizentziaren eskaera.

Perris eta Saramusko bideetan sortutako kalteen konponketaren ostean, Alvarez Forestal enpresari bermea ez itzultzeko akordioa.

Perriseko bidean sortutako kalteen konponketaren ostean, Central Forestal S.A. enpresari bermea ez itzultzeko akordioa

Saramusko bidean sortutako kalteen konponketaren ostean, Maderas Kepa Atutxa S.A. enpresari bermea ez itzultzeko akordioa.

Jesusa eta Valentina Otazua Atekaren ehorzketa hondarrak lekuz aldatzeko eskaera.

Juan Jesus Ojinaga Esturok aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Unai Trojaola Renobalesek aurkeztutako obra lizentzia luzapenaren eskaera.

Fakturen onarpena.

Amets Ladislao Gonzalezek aurkeztutako obra lizentzia eskaera.

Perris eta Saramusko bideetan sortutako kalteen konponketaren ostean, Alvarez Forestal enpresari bermea itzultzeko akordioa.

Perriseko bidean sortutako kalteen konponketaren ostean, Central Forestal S.A. enpresari bermea itzultzeko akordioa

Saramusko bidean sortutako kalteen konponketaren ostean, Maderas Kepa Atutxa S.A. enpresari bermea itzultzeko akordioa.

III.- 2015eko AURREKONTU OROKORRAREN 3 ZKDUN KREDITUEN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENAK KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ.

2015eko Udaleko Aurrekontuari reagiten dion Kreditu gehigarrien bitartez kreditu aldaketaren espedientea irakurri da

Idazkari kontuhartzaileak egindako informe irakurri da. Aipatutako espedientea, aplikagarri zaion araudian oinarritua dago, Abenduaren 2ko Aurrekontuzko Toki-Erakundearen 10/2003 Foru-Arauko art.34-ean ezarritako izapideetara zehazki.

Deliberamendu egokiaren ondoren eta bozketa ostean, Alkate jaunaren eta Aitzbea Yarto Goiri eta Elixabete Arriaga Calvo zinegotzien aldeko botoekin eta Aintzane Enzunza Zorrozueta eta Gartzten Agirregoitia Abad zinegotzien kontrako botoekin, aldaketan sartutako frontoiaren itxieraren proiektuarekin ez daudelako ados, zera **ONARTU DA**:

Lehenengo.- Udaleko Aurrekontuari reagiten dion Kreditu gehigarrien bitartez kreditu aldaketaren espedientea onartzea, aipatutako proposamenaren arabera. Honako hau da edukia kapituluka:

KREDITUEN GEHIKETAK

Kapitulua	Izena	Gehiketak
6	Inbertsio errealak	68.055,00
GUZTIRA GEHIKETAK ...		68.055,00

FINANTZATZEN DITUZTEN ERREKURTZOAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
7	Sarrera berri eta Nagusiak	15.159,60
8	Diruzaintzako Gerakina	52.895,40

GUZTIRA		68.055,00

Bigarren.- Espedientea jendaurrean jartzea hamabost eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkeztu ezik, behin betikotzat joko da, espedienteari Aurrekontu Orokorraren onarpenari dagozkion tramite berdinak emanez.

IV.- “GURE ETXEA” HIRUGARREN ADINEKOEN ELKARTEAK AURKEZTUTAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA.

“Gure etxea” adinekoen elkarteak dirulaguntza eskaera aurkeztu du, 2015eko ekitaldian ekintza sozial eta kulturalak egiteko. Udalbatzak, aho batez, mila eta ehun (1100) euroko dirulaguntza ematea adostu du.

V.- NORBERAK LEKARKEENA.

Arrietako ekitaldien gaineko informaziorik eza.

Aintzane Enzunza Zorrozuak aurreko larunbatean txirrindulari zaleen lasterketako partehartzaileak bildu zirela Arrietako plazan adierazi du eta ez dela horren gaineko informaziorik eman.

Alkate jaunak aurreko eguenean, bi egun lehenago, jakin zuela esan du, dei bat jaso zuela txirrindulariek Arrietako plaza erabiliko zutela adieraziz, kanpainaren amaiera ospatzeko.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko